

Agiri-mota / Tipo de documento: **Erdibideko zuzenketa / Enmienda transaccional**

Data/ Fecha: 2019/01/30

Nori Zuzendua / Dirigido a: BNetako Mahaiari / La mesa de las JJGG de Gipuzkoa

Aurkezleak / Proponentes: Lauaizeta ikastetxea, Herrikide ikastetxea, Lizardi ikastetxea eta Urretxu-Zumarraga ikastolako bozemaileak

Batzarkide taldeak / Grupos junteros: Lauaizeta ikastetxea, Herrikide ikastetxea, Lizardi ikastetxea eta Urretxu-Zumarraga ikastola

IZENBURUA / TITULO:

Erdibideko zuzenketa, migrazioari buruzkoa.

ZIOA / MOTIVACIÓN:

Honakoa adostu dugu.

EKIMENA / INICIATIVA:

Gipuzkoako Batzar Nagusietako "Demogazte" taldeak, erakunde ezberdinei eskatzen die migratzaileen egoerari aurre egiteko honako eginkizunak bete ditzaten, bakoitzaren eskumenak aintzat hartuta, era koordinatuan:

1. Beharrezkoak diren baliabideak jarri ditzatela pertsona guztien Giza Eskubideak errespetatuak izan daitezen.
2. Gipuzkoa harrera-lurralde bilakatu dadila, beharrezkoak diren baliabideak jarriz Gipuzkoan dauden errefuxiatuei edo hemendik igaroz doazen pertsonen egoera zail honetan harrera integral bat eskaintzeko gure lurraldean dauden bitartean.
3. Gipuzkoara iristen diren migratzaileei aterpea eskaini, bertan beharrezkoak dituzten baliabideak emango zaizkielarik: janaria, osasun arreta, laguntza psikologikoa, eta familiarekin edo laguntza eskaintzen duten taldeekin komunikatzeko bitartekoak.
4. Bereziki azpimarratu nahi dute, aterpe edo bestelako lekuetan migratzaileek dituzten aukerez informatu, hau da, beste herrialde batera migratu edo eta bertan gelditzeko zein bide dauden. Hautatutako aukerari buruz zer egin behar duten azaldu eta beharrezko baliabide guztiak eskaini. Bertan gelditu nahi izanez gero, horretaz arduratzen diren talde edo elkarten helbideak eman, eta hemen geratzeko beste babesleku batera eraman. Bestalde, geratu behar ez direnei bidaiarekin nola jarraituko duten azaldu eta joan behar diren lekuari buruz informazioa eman, eta nola iritsi azaldu.
5. Bertan gelditzen diren errefuxiatuei etxebizitza eskaini
6. Errefuxiatuak gure herrian integratzeko, laguntza zentroak jarri ditzatela, besteak beste euskara erakusteko, herria ezagutzeko, eta bertako jendearekin harremanak edukitzeko.
7. Formakuntza ikastaroak abian jarri, lanbidea errazteko eta kultura heziketa eskaini, giza eskubideetan oinarritutako gure ohiturak eta balioak ezagutarazteko, eta gure herrira ahalik eta azkarren egokitzeko.



8. Komunikazio plan bat martxan jarri, gizarteari Giza Eskubideen inguruko ezagutza eta migratzaileen egoera azaltzeko eskoletan ikasgai baten bitartez eta komunikabideetan berri emanaz. Plan honetan migratzaileak etortzearen alde onak azpimarratzea eta beren inguruan esaten diren gezur eta aurreiritziak baliogabetzeko datuak argitara ditzatela. Horrez gain, migratzaileei laguntza nola eskaini dakiekeen azaltzea arrazakeria eta xenofobiari aurre egin eta Giza Eskubideak kontuan izanik. Bai eta erakunde, Aterpe eta elkarteak non dauden ezagutarazi, edonork edozein migratzaile harantz zuzentzeko aukera izateko.
9. Kontrolatu ditzatela komunikabideak eta figura publikoak. Bermatu dezatela informazio eta datu objektiboak erabiltzen dituztela. Betetzen ez bada, hartu ditzatela beharrezko neurriak. Zaindu informazio eta datu objektiboak zabaltzen dituztela komunikabideek eta figura publikoek eta hala ez denean, erantzunaren premia neurtu egia azaltzeko.
10. Migratzaileei dagokienez, ikusirik "Schengen hitzarmena" ez dela betetzen (Europar Batasuna osatzen duten herrialdeen arteko muga kontrolak kentzea), honen harira, salaketa irmo bat bideratzea eta Europar Batasuneko erakundeetara kexa bat bidaltzea.
11. Exijitu dezatela Europar Batasuneko herrialdeek errefuxiatuak jasotzeko hartutako konpromisoa betetzea.
12. Galarazi edo salatu ditzatela ardura daukaten erakundeen artean "berehalako kanporatzeak". Hauek ez dituzte Giza Eskubideak errespetatzen eta Irunen gertatzen dira, Gipuzkoan. Bermatu dezatela pertsona guztien Giza Eskubideak betetzen direla Gipuzkoako lurraldean.

BOZERAMAILEAREN SINADURA / FIRMA PORTAVOZ

Lauaizeta batzarkide-taldea

BOZERAMAILEAREN SINADURA / FIRMA PORTAVOZ

Herrikide batzarkide-taldea

BOZERAMAILEAREN SINADURA / FIRMA PORTAVOZ

Urretxu-Zumarraga ikastolako batzarkide-taldea

BOZERAMAILEAREN SINADURA / FIRMA PORTAVOZ

Lizardi batzarkide-taldea

